

“Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak”. Mikel Zalbideren txostenari iruzkinak.

Olatz Altuna Zumeta

Soziolinguistika Klusterreko teknikaria

o.altuna@klusterra.eus

Sarrera-data: 2016-07-13 | Onartze-data: 2016-08-04

Laburpena. Mikel Zalbidek egindako lan sakonari buruz arituko naiz, gehigarri gisako honetan. Txosten mardula ekarri digu Mikelek, bikain josia eta erreferentzia ugariz hornitua. Neure ekarpenean sei hari muturri helduko diet, nagusiki: 1.- Euskal hiztunaren definizioari. Zer da “euskal hiztuna, eta zer ez” 2.- Erabilera aitortua eta Kale-neurketaren erabileraren alderaketari, 3.- Erabilera indizea lortzeko galderari, 4.- Analisi geoterritorialari, 5.- Eraginkortasun-indizeari, eta, 6.- Euskal hiztunen ezaugarri eta joera batzuei • **Hitz gakoak:** euskal hiztuna, kale-neurketa, erabilera-indizea, analisi geoterritoriala, adin-tarteak, solas-taldeak.

Abstract. In this paper, which is a kind of supplement, I will be dealing with the in-depth work done by Mikel Zalbide. Mikel provided us with a meaty report, brilliantly put together and supported by numerous references. In my contribution I will be dealing mainly with six aspects: 1.- The definition of the Basque speaker. What is and what is not “a Basque speaker” 2.- Comparison between acknowledged use and Street use, 3.- The question designed to obtain the use index, 4.- Geo-territorial analysis, 5.- Effectiveness index, and, 6.- Some features and trends of Basque speakers. • **Key words:** Basque speaker, street measurement, use index, geo-territorial analysis, age difference, conversation groups.

SARRERA

I
Mikel Zalbidetik egindako lan sakonari buruz arituko naiz, gehigarri gisako honetan. Txosten mardula ekarri digu Mikelek (aurrerantzean *txostengile edo egile* izendatuko dut), ondo josia eta erreferentzia ugariz hornitua.

Hainbat gogoeta, argibide eta proposamen bildu ditu, koherentzia eta zorroztasun handiz. Txostenak badu terminologiari egindako ekarria, badu analisi sinkroniko eta diakroniko interesgarria Euskal Herria osorik hartzen duena. Euskararen egoera soziolinguistikoa neurtzeko bada ere, gure mugaz haraindi, nazioarteko ereduak aurkeztu eta egokitzen ditu. Eta, etorkizuneko erronkei begira jarrita, gogoeta soziolinguistikorako etxearen premia aldarrikatzen du. Indar eta konbentzimendu handiz esaten digu: hizkuntzak arnaguneak behar ditu, arnasa hartzen dugunok hizkuntza behar dugun bezainbat.

Gainbegiratze ariketa fina da, bere horretan mardula eta mamitsua. Txostena irakurri ahala lehenik etorri zaidan pentsamendua izan da sortzez mamitsua eta koherentea denak ez duela osatzeko premia handirik. Neure ekarpenari zer forma eman erabakitzerakoan, hari mutur bakan batzuei heltzea deliberatu dut, txostenean jasotako ikuskera, iritzi eta planteamenduekin ados nagoelako neurri handi batean.

Jatorrizko testua oinarri hartuta egin ditut, beraz, nire ekarpenak. Neurea ez da txosten beregaina, jatorrizkoak iradokitako apunteez osatutakoa baizik. Hortxe daude, bada, nire oharrak, puntuz-puntuko segidan eta ezinbestean laburki azalduak. Jatorrizko txostenaren ekarria lardaskatu gabe, zer probetxuzkorik ematen asmatu badut, konforme.

EUSKAL HIZTUNAREN DEFINIZIOA. ZER DA “EUSKAL HIZTUNA, ETA ZER EZ?”

I
Abiaburuan zenbait terminoren esanahia definitzeko eta desanbiguatzeko saioa egiten du txostengileak, bi asmorekin: batetik, txostenean zein adieratan erabiliko diren argitzeko, eta, bestetik, ikuspegi operatibo-funtzional baten mesedetan jartzeko.

“Euskal hiztuna” zer den argitzen da, besteak beste. Eta zehatz dio egi-leak: “euskal hiztuna ez da euskaraz dakien edonor, euskaraz egiten duena baizik”. Horra, bada, hasieratik argituta: jakiteaz gain, erabiltzea da baldintza. Mintzajardunaz aritzean, oso egokia da argibide hori.

Txostenak badu terminologiari egindako ekarria, badu analisi sinkroniko eta diakroniko interesgarria Euskal Herria osorik hartzen duena.

Erabilerak egiten gaitu euskal hiztun. Koska, ordea, ezaugarri kuantitatiboan ere badago: zenbateko erabilerak egiten gaitu euskal hiztun?

Kualitatiboki hortxe markatzen da tasuna: erabilerak egiten gaitu euskal hiztun. Koska, ordea, ezaugarri kuantitatiboan ere badago: zenbateko erabilerak egiten gaitu euskal hiztun?

Horri ere heltzen dio egileak aurrerago. Hala, erabileraren mailaketari begira, inkesta soziolinguistikoan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) erabilitako eredia hartzen du erreferentzia gisa. Horren arabera, E4 mailan daude euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak, eta, beste ertzean, E0 mailan daude beti erdaraz egiten dutenak. Tartean daude E3 (euskaraz erdaraz beste), E2 (euskaraz erdaraz baino gutxiago) eta E1 (oso gutxi euskaraz). HPSk, bost horiekin batera, beste kategoria bat ere badarabil, ET (“Erabilera Trinkoa”) kategoria, honela definitzen dena: $ET = E4 + E3$. Hortik, egileak ekarpen kontzeptual eta terminologikoa egiten du, *ET-hiztun* eta *ET-jardun* terminoak ere harira ekarriz.

Oker ez bagaude, euskal hiztunak ET-hiztunen kategoriara mugatu dira, arrazoi operatiboak direla medio. Aukera bat egin behar eta, ulergarria eta zentzuzkoa da hautu hori, gure ustez. Behar den guztian E4 eta E3 bereiz tratatzeko komenientzia ere azpimarratzen da.

Hala ere, hautaketa horretan E1 eta E2 alorreko hiztunak oso bigarren mailan uzten dira. Bereziki E2koei dagokienez, zalantza sortzen digu hain bigarren mailan uzteak. Izan ere, populazioaren zati handi bat kokatzen da “euskaraz erdaraz baino gutxiago” edo “euskaraz oso gutxi” aritzen direnen artean, eta, beren jardunean euskara bigarren mailakoa delako, badirudi ahaztu egiten zaigula elebidunak direla izatez. Esku artean ditugun datuen arabera, EAEn 132.833 biztanle dira E2koak (%22) eta 43.596 E1ekoak (%7); eta Nafarroan 20.037 E2koak (%32) eta 8.614 E1ekoak (%14). Jakina, horietako askoren kasuan euskaraz gutxi aritze horren arrazoi nagusia gaitasun eza izango da (nola-halako elebidunak), baina jarrerak edo bestelako arrazoi soziolinguistikoek ere izango dute eragina. Eta hortik dator erreparoa: E2 eta E1 multzoan dauden euskaldunak bigarren mailan utzi behar al dira? Gure ustetan, jakitun izanda ere euskal hiztunen kategorian ez direla berez sartzen, erabileraren aztergaiak aintzat hartu beharko lituzke E2koak (eta E1koak), euskararen geroari begira garrantzitsua da-eta kategoria hauekako hiztunak progresiboki E3 eta E4 kategorietara pasatzea.

E4 ETA KALE-NEURKETAREN DATUAK

I

Erabileraren nondik norakoak lantzez gero, beharrezkoa da egindako ikerketetatik eta datu-iturburuetatik informazioa jasotzea eta prozesa-

tzea. Askotan, ordea, iturri heterogeneoak baitira, ez da samurra gertatzen datu horien bateratzea edo erkatzea.

Inkesta soziolinguistikoan hizkuntza-erabilera bost mailatan antolatzen da, eta kale-neurketan portzentajeak ematen zaizkigu. Nola erkatu bi iturburu horiek?

Egileak saiakera egin du E4ra ekartzeko kale-neurketaren datuak, suposatuz euskaraz entzundako elkarrizketak “euskaraz erdaraz baino gehiago” moldeari dagozkiola. Baina, parekatze edo sinplifikatze hori argitu beharrekoa da.

Bi kontzeptu oso desberdin dira. Bata, E4 kategorია, norbere ohiturari dagokio, eta inkestatuak ohiko jardunean euskaraz erdaraz baino gehiago egiten duela aitortzen du. Bestea, kale-neurketa, momentuko jardun puntualen behaketan oinarritzen da. Kanean euskarazko elkarrizketa bat jasotzen denean, ez dago esaterik bertan parte hartzen dutenek ohituraz euskaraz gehiago egiten dutenik erdaraz baino. Une horretan euskaraz edo erdaraz ari dira, hori da jaso eta dakigun bakarra.

Nork bere buruaz duen inpresioa adierazten du erabilera aitortuak, eta gerta daiteke inpresio hori bat ez etortzea egiazko erabilerarekin. Edonola ere, erabilera aitortuaren eta behatuaren arteko korrelazio-azterketa interesgarria da oso. Bide horretan, Iñaki Iurrebasok kale-erabilera behatua eta erabilera informal aitortua konparatu ditu (Iurrebaso, 2012). Azterketak hiru puntu inguruko aldea eman du: erabilera-tasa behatua %11,5 den bitartean, 2011ko ISLn etxeko eta lagunarteko erabilera aitortuaren batez bestekoa %14,8 da. Gorago dago aitortua behatua baino. Nabarmenezkoa da, hala ere, Iurrebasok berak dioenez, “bi iturri nagusien koherentzia izugarria”.

JARDUNGUNE DESBERDINETAKO ERABILERA INDIZEA

Jardunguneen ezaugarriek erabileraren indizean eragiten dutenez, bai inkestetan bai erabilera behaketetan, jardunguneak tipifikatu eta bereiz tratatzeak aukera ematen du analisi xeheagoak eta doituagoak egiteko, eta horien arabera interbentzio-lehentasunak ordenatzeko, hizkuntza-plangintzak egiteko eta abar. Metodologikoki ez dago zalantzarik eta zentzu bete du horrela jokatzek.

Hori horrela izanda ere, komeni da jardungune bakoitza modu isolatuan ez lantzea. Jardunguneka egindako karakterizazioen eta azterketen al-

Gure ustetan, erabileraren aztergaiak aintzat hartu beharko lituzke E2koak (eta E1koak), euskararen geroari begira garrantzitsua da-eta kategoria hauetako hiztunak progresiboki E3 eta E4 kategorietara pasatzea.

**E4 kategoria,
norbere ohiturari
dagokio, eta
inkestatuak
ohiko jardunean
euskaraz erdaraz
baino gehiago
egiten duela
aitortzen du.
Bestea, kale-
neurketa,
momentuko
jardun puntualen
behaketan
oinarritzen da.**

derdi komunak (eta desberdintasunak) detektatzea oso komenigarria da. Ikusi behar da zer den orokorgarri eta zer ez, zertan egin daitezkeen politika orokorrak eta zertan den beharrezko berezituak egitea.

Helburuak aginduko du: batzuetan jardungune mailako xehetasunak beharrezkoak izango dira, baina ez beste batzuetan.

GALDERA FUNTZIONAL EGOKI(AR)EN BILA

I Esandakoaren haritik, HPSk “erabileraren tipologia” deitzen duen datua (ISL datu trinkoa), jardungune desberdinen konbinaziotik eratortzen da, hartara ET kategoria sortzeko. Datu hori eskuratu ahal izateko inkesta bidezko galdera bat baino dezente gehiago egiten dira. Beraz, modu konplexua erabiltzen da, erantzunen konbinaziotik eratortzen delako datu hori. Gainera, gunekako datu horiek ondo ponderatzea ere ez da erraza. Azken batean, kostu handiko hurbilpena da, eta sistematikoki egiten zaila.

Horren aurrean, ez al genuke bide errazago bat erabili beharko besterik ezin denean? Gure ustetan, on litzateke galdera soil bakar batez gerturatzeari emaitza horretara.

Katalunian, esate baterako, *Enquesta d’usos lingüístics de la població (EULP)* inkestan ISL galderen oso antzekoak egiten dira, baina bada galdera orokor bat, nonahiko eta noiznahiko balio dezakeena: “*Pot indicar-me quina és la seva llengua habitual?*” (“Zein da zure ohiko hizkuntza?”)¹.

Galdera hori bera, edo besteren bat, egokitzen jo eta erabiltzeak erabilera masiborako aukera emango luke. Errazagoa litzateke Eusko Jaurlaritzak duen estatistika planean euskararen erabilerari buruzko galdera orokor bat sistematikoki eranstea², eta horrela adierazle esanguratsu bat izango genuke, gune eta jarduera askotarikoetan jaso daitekeena, eta maiz jaso ere.

ANALISI GEOTERRITORIALA

I Hizkuntzaren erabileraz ari garela, Euskal Herria unitate homogeen gisa hartzerik ez-eta, lurralde eremuen aukeraketak ematen du hizpidea. EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria hartzen dira askotan eremutat, eta horri buruz hala dio txostengileak: “hiru esparru geoadministratibo horien arabera datu-lanketak ez digu ordea, askotan, ezaugarri demolingüistiko askoren benetako aldakortasun geoespaziala behar bezain xehe erakusten”. Hori dela eta, bederatzi esparrurako jautzia egitea pro-

posatzen du, Nafarroako eta Iparraldeko eremuak areago partituz. Banaketa xeheago horrek hobeto islatzen du gure mapa soziolinguistikoa, baina ez agian behar bezain xehe. Adibidez, EAEko herrialdeak zonalde bakartzat hartzen dira, baina espazio arras desberdinak aurki ditzakegu herrialde bakoitzaren barruan.

Esan dugunez, ematen du hizpidea gai honek, eta zonalde linguistikoak adosteko premia nabaria da, hainbat dira-eta erabiltzen diren irizpideak. Badago adosteko premia, baina ez da erraza irizpideak bateratzea. Horregatik, honakoan ere, ikuspegi funtzionala erabiltzea komeni da, besteak beste, datuen eskuragarritasuna kontuan hartuta.

Gure proposamenean, matrize baten antzera irudikatzen dugu zonalde linguistikoaren banaketa, non ardatz batean jartzen dugun banaketa administratiboa, eta gaitasunean oinarritutako eremu soziolinguistikoak beste ardatzean. Mapa Soziolinguistikoan egiten den bezala, lau eremu soziolinguistiko bereiziko ditugu (ezagutza %20tik behera, %20-50, %50-80, %80tik gora³), eta hiru administrazio-esparru. Lau bider hiru dimentsioko matrizean, 12 gelaxka ateratzen zaizkigu, eta gelaxka bakoitza zonalde linguistiko bati dagokio⁴.


Beharrezko datu guztiak eskuragarri baleude, halakoa litzateke matrizea. Baina, zoritxarrez, gaur-gaurkoz Ipar Euskal Herrian ez dugu hizkuntza gaitasunari buruzko udalerrrikako daturik⁵. Besterik ezean, Ipar Euskal Herrian ISLan erabiltzen den hiru eremuko banaketa baliatuko dugu: Baiona-Angelu-Miarritze herriarte (laburduraz BAM), Lapurdiko barnealdea (laburduraz LB) eta, Nafarroa Beherea eta Zuberoa (laburduraz NBZ).

Honenbestez, zortzi hegoaldeko gehi hiru iparraldeko, hamaika gelaxkako matrizean adierazten da zonalde linguistikoaren banaketa.

**Gure
proposamenean,
matrize baten
antzera
irudikatzen dugu
zonalde
linguistikoaren
banaketa, non
ardatz batean
jartzen dugun
banaketa
administratiboa,
eta gaitasunean
oinarritutako
eremu
soziolinguisti-
koak beste
ardatzean.**

**Euskaraz egiteko
gai direnek, noiz,
non, nola,
zergatik egiten
dute (edo ez)
euskaraz?
Euskaraz egin
dezaketen guztiek
ez baitute egiten,
gai izatetik
hiztun izaterako
pauso horretan
galera dago.
Erronka galera
hori gutxitzean
dago.**

1. Irudia: Euskal Herriko zonifikazioaren proposamena.



Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2011.

KALE ERABILERA VS. GAITASUNA

Gaur egun, gogoeta askoren gaia da gaitasunaren eta erabileraren arteko korrelazioa. Kezka eta galdera da: euskaraz egiteko gai direnek, noiz, non, nola, zergatik egiten dute (edo ez) euskaraz? Euskaraz egin dezaketen guztiek ez baitute egiten, gai izatetik hiztun izaterako pauso horretan galera dago. Erronka, askok diote, galera hori gutxitzean dago.

Gogoeta honi heltzeko, ET multzoko hiztunen datuak (absolutuak nahiz proportzio erlatiboak) eta gai direnen datuak osagai ezinbestekoak dira. Oinarrizko datu horien gainean abiatzen da azterketa: zein lotura dago bien artean? Beñat Arregiren irudiak baliatzen ditu txostengileak datu horiek ikuspegi bisual batez emateko. Eta, datuak hala emanda, lehen begiratuak ikusten da gaitasunaren eta erabileraren arteko korrelazioa. Baina, gatozen grafikoetan agertutakoa aztertzeraz.


Hasteko, esan behar da oso dela interesgarria lau datu-iturburu irudi berean jasotzea (erabilera soziala, gaitasuna, hiztun kopurua eta erabilera erlatiboak), ikuspegi osatu eta integratu batean. Bidenabar, nabarmentzekoa da Beñat Arregik egindako ekarpena datuen bisualizazioan.

Datuen arteko korrelazioari dagokionez, oso kurba “erregularra” erakusten da, desbideratzerik ez duena, portaera homogenea islatzen duena: *nolako gaitasuna, halako erabilera*. Kontua da, ordea, ezin duela bestela izan. Erabilera “soziala” esaten denean, ez gara ari erabilera erreala, baizik eta kalkulu aritmetiko batez. Hau da, erabilera soziala kalkulatu egiten da, hain zuzen ere euskaraz aritzeko gaitasunaren portzentajearen oinarrituta. Txillardegiren eredua baliatzen da (ondoren Xabier Isasik garatu eta osatu duena) erabilera soziala zein den esateko. Grafikoan erakutsitakoa konstrukto teorikoa da, Txillardegiren eredua bisualizazioa. Eta, noski, gaitasunean oinarrituta kalkulaturako erabilera argitan, ondorioztatzen dena da erabilerak lotura estua eta uniforme duela gaitasunarekin.

Erabilera sozialaren ordeztasun erabilera erreala jar dezakegu grafikoan.

Gurpil horretatik ateratzeko, erabilera sozialaren ordeztasun erabilera erreala jar dezakegu grafikoan. Horretarako, antzeko grafikoa egin dugu datuak kale neurketatik jasoz (ikus 2. Irudia). Beñat Arregiren moldea jarraituz, gaitasunaren ehunekoa adierazi dugu X koordenatuan, eta borobilen tamainek udalerraren biztanle kopurua adierazten dute.

2. Irudia: Gaitasuna Vs Kale erabilera.



Iturria: EUSTAT eta IEN, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2011 eta 2001 (Nafarroako herri txikiak); SOZIOLOGIA KLUSTERRA, Euskal Herriko Kale Neurketa, 2011.

Txostenean jasotzen den kurbak eta 2. irudian osatu dugunak joera bera erakusten dute: gaitasun-tasak gora egin ahala, erabilera-tasak ere gora egiten du, salbuespenak salbuespen. Baina, aurreikus zitekeen ondorio orokor horretatik harago, badira nabarmentzeko moduko bestelakoak ere:

- Oro har, kurbaren formari eutsi egiten zaio. Esan nahi baita %40-50eko gaitasunera iritsi arte nekez egiten duela gora erabilerak. Hortik aurrera, gaitasuna handitu ahala gero eta nabarmenagoa da


erabileraren gorakada. Gero eta malda handiagoa du erabileraren kurbak.

- Hala ere, erabilera erreala adierazi denez, grafikoak kurba “zabalagoaren” forma hartzen du. Patroia ez da hain hertsia. Antzeko gaitasuna duten herrietan erabileraren ehuneko gehiago aldatzen da. Aztertzea litzateke zer faktorek eragiten duten horretan, alegia, gaitasun antzekoa izanagatik, zergatik erabiltzen den herri batzuetan gehiago beste batzuetan baino. Biztanle kopurua izan daiteke faktoretako bat, baina grafikoak ez du joera garbirik erakusten. Azterketa soziolinguistiko sakonagoa eskatzen du gai honek.

Edonola ere, Euskal Herriko Kale Neurketan jarraitutako metodologia ez dago pentsatuta udalerrrikako azterketa xehea egiteko. Oinarrian dagoen eredu estatistikoak Euskal Herria osorik hartzen du, eta erabiltzen diren laginek EH osorako bermea ematen dute.

Baina, hainbat udalerririk egin dute berariazko erabilera-neurketa. Kasu horietan, ordu eta elkarrizketa gehiago neurtzen direnez, lagin nahikoa jasotzen da erabilerari buruzko datu fidagarriak izateko. 51 dira horrela aztertutako udalerrriak, eta esan dezakegu datu fidagarriak eta adierazgarriak ditugula horiei buruz. 3. irudiko grafikoak herri horiek hartzen ditu, eta horien arabera kurba erakusten du.

3. Irudia: Gaitasuna Vs Kale erabilera, datuak adierazgarriak diren udalerrietan.



Iturria: EUSTAT eta IEN, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2011 eta 2001 (Nafarroako herri txikiak); SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, Udalerrietako Kale Neurketak, 2011.

ERAGINKORTASUN-INDIZEA

I
Gaitasunaren eta erabileraren arteko korrelazioari *eraginkortasun-indize* deitu izan zaio. Euskararen kale erabileraren eraginkortasun-indizea, behatutako erabileraren eta adierazitako gaitasunaren arteko ratioa da, eta data, eremu eta gizatalde jakin baten gaitasunaren eta erabileraren arteko harremana adierazten du. Gurean, euskaldunek euskara zenbat eta gehiago erabili, orduan eta handiagoa da euskararekiko eraginkortasun-indizea.

Indizea honela formulatzen da:

$$\text{Eraginkortasun-indizea} = \text{Erabilera} / \text{Gaitasuna} * 100,$$

non, *Erabilera* eta *Gaitasuna* aldagaien datuak ehunekoetan emanak diren. Indizeak, horrela formulatuta, 0 eta 100 arteko balioak hartzen ditu¹.

4. Irudia: Zonalde linguistikoa, erabilera-maila eta eraginkortasun-indizea

Udalerrietako neurketak, 2011			
	Udallerri kopurua	Erabilera maila (batez bestekoa)	Eraginkortasun-indizea (batez bestekoa)
1 zonalde linguistikoa (gaitasuna %20tik behera)	1	--	--
2 zonalde linguistikoa (gaitasuna %20-30 %20-50)	%20-30	% 6	22
	%30-40	% 14	37
	%40-50	% 16	36
3 zonalde linguistikoa (gaitasuna %50-60 %50-80)	%50-60	% 31	55
	%60-70	% 47	72
	%70-80	% 60	82
4 zonalde linguistikoa (gaitasuna 80tik gora)	3	% 75	91
	50 ²		

Iturria: SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, Udalerrietako Kale Neurketak, 2011. EUSTAT eta IEN, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2011 eta 2001 (Nafarroako herri txikiak).

Gaitasun mailaren eta eraginkortasun-indizearen taulan (4. irudia) aipatzekoak iruditzen zaizkigu honako puntuak:

- Erabilera eta eraginkortasun-indizea batez bestekoetan adierazi da. Hala ere, badago aldea herrien artean, eta datuen bariantza ez da txikia.

**Euskaldunek
euskara zenbat
eta gehiago
erabili, orduan
eta handiagoa da
euskararekiko
eraginkortasun-
indizea.**

**Gaitasunak gora
egin ahala, ez da
bakarrik gehiago
erabiltzen dela,
baizik eta
gaitasunarekiko
proportzioan ere
erabilerak gora
egiten duela.**

- Gaitasun mailak korrelazio estua du bai erabilera mailarekin bai eraginkortasun-indizearekin.
- Gaitasunak gora egin ahala, ez da bakarrik gehiago erabiltzen dela, baizik eta gaitasunarekiko proportzioan ere erabilerak gora egiten duela. Nabarmen ikusten da hori aztertutako herrietan, modu oso erregularrean.
- Euskaldunen dentsitatea atalase batera inguratzen denean, bai erabilerak bai eraginkortasun-indizeak gorako joera areagotu egiten dute.
- “Egoera anisotropikoa” ere agertu da. *Anisotropikoa* deitzen zien Txillardegik erabilera ezagutza baino portzentaje handiagoan gertatzen zeneko egoerei. Udalerrri bakar batean, Ondarroan, jaso dugu erabilera anisotropikoa. Egoera horretatik gertu daude Orozko eta Zestoa. Beraz, udalerrri horietan, hizkuntza ohiturak hain daude errotuta eta zabaldua, ezen joera hegemonikoa den euskaraz egitea.

EUSKAL HIZTUNEN EZAUGARRIAK: ADIN-TARTEA ETA SOLAS-TALDEAK

I
Kale Neurketaren emaitzak oinarri hartuta, euskal hiztunen ezaugarri eta joera batzuk nabarmentzen dira txostenean. Besteak beste, adin-tarteen jokabideari begira, txostengileak ez du uste arau orokortzat har daitekeenik honako baieztapen hau: “zenbat eta adin-tarte gazteagoa, hainbat eta erabilera-tasa handiagoa”. Alabaina, joera nagusi hori erakusten dute 2011ko Kale Neurketaren emaitzek. Hain zuzen ere, adin-tarteen araberako joerak zehatzago aztertzeke, 51 udalerriren emaitzak landu ditugu. Udalerrri horiek honela daude banatuta herrialdeka: Araban 3, Bizkaian 18, Gipuzkoan 19, Nafarroan 10 eta Lapurdin 1.

Lau adin-tarteetako (haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak) erabilerak tasa altuenetik baxuenerako hurrenkeran antolatu ditugu tipologiak osatzeko. Hala, adibidez, *HaurGazteHelduAdineko* tipologiak adierazten du hurrek darabiltela gehien euskara, eta gero gazteak, helduak eta adinekoak hurrenkera horretan. Hortaz, tipologiaren izenak berak adierazten du zein den adin-tarteen hurrenkera erabilerari dagokionez. Lagin gisa hartu ditugun 51 udalerrietan, 12 tipologia desberdin atera zaizkigu. Beraz, portaera nahiko heterogeneoa agertu zaigu, honela banatuta: “*HaurGazteHelduAdineko*” 15 udalerrri, “*GazteHaurHelduAdineko*” 11 udalerrri, “*HaurHelduGazteAdineko*” 7 udalerrri, “*HaurAdinekoHelduGazte*” 4 udalerrri, “*GazteHaurAdinekoHeldu*” 3 udalerrri, “*HaurGazteAdinekoHeldu*” 2 udalerrri, “*HaurHelduAdinekoGazte*” 2 udalerrri, “*AdinekoHaurHelduGazte*” 2 udalerrri, “*HaurAdinekoGazteHeldu*” udalerrri 1,

“GazteHelduHaurAdineko” udalerrri 1, “GazteAdinekoHaurHeldu” udalerrri 1, “AdinekoGazteHaurHeldu” udalerrri 1⁶.

Beraz, 2011ko Kale Neurketan bi dira tipologia ohikoenak adin taldekako erabilerari dagokionez. 26 udalerritan (%52) ematen da bi tipologia nagusi horiek adierazitako joera. Bietan helduak eta adinekoak daude hirugarren eta laugarren tokian hurrenez hurren, baina haurren eta gazteen ordena aldatzen da:

- Gehien agertu den tipologian, haurrena da erabilera-tasa altuena eta bigarren tokian daude gazteak⁷.
- Bigarren tokian agertzen den tipologian gazteek haurrek baino gehiago egiten dute euskaraz⁸.

Beraz, belaunaldi gazteak aurretik. Atzera begira jarrita, hori ez zen gertatzen duela 25 bat urte, lehen neurketak egiten hasi ginenean. Baliaestekoa da bilakaera hori.

Bestalde, solas-taldee begira jarrita, “solas-taldean haurrik baldin bada, edo solas-taldeko kideak haurrak baldin badira, gora egin ohi du normalean erabilera-tasak”. Aurkikunde behinenetakoa da egilearen ustez solas-taldean jokabide hori.

Merezi du, gure iritziz ere, azterketa ernea eta orokortua kontu honek. Kale neurketaren datu-bilketan elkarrizketak hiru multzotan banatzen dira: a) haurren arteko elkarrizketak⁹, b) haur eta nagusien artekoak, eta c) nagusien artekoak.

Txostenean azaldutakoak osatze aldera, ikus dezagun hiru solas-talde horien artean zein diren euskaraz egin zaleago, eta zein hurrenkeratan, ahal bada joera orokorreari antzemateko. Bost tipologia (edo banaketa) behatu ditugu, erabilera altuenetik baxuenerako hurrenkeran. Adibidez, *Haur-nagusi/Haur-haur/Nagusi-nagusi* tipologiak adierazten du haurren eta nagusien arteko elkarrizketak direla euskaldunenak, gero haurren artekoak eta azkenik nagusien artekoak. Berriz ere 2011an udalerrietarako berariaz egindako Kale Neurketetan oinarrituta, honakoa da tipologia horien banaketak:

- *Haur-nagusi/Haur-haur/Nagusi-nagusi* da banaketarik usuena, 19 udalerritan gertatzen dena.
- *Haur-haur/Haur-nagusi/Nagusi-nagusi* banaketa ere maiz gertatzen da (17 udalerritan).

Adin-tarteen jokabideari begira, txostengileak ez du uste arau orokortzat har daitekeenik honako baieztapen hau: “zenbat eta adin-tarte gazteagoa, hainbat eta erabilera-tasa handiagoa”. Alabaina, joera nagusi hori erakusten dute 2011ko Kale Neurketaren emaitzek. 51 udalerriren emaitzak landu ditugu.

**Haurren era
bateko edo
besteko
presentziak
erabileraren
gorakada
ekartzen du.**

**Udalerrri txiki
euskaldunetan
(arnasguneetan)
aztergai dagoela,
baina susmatzen
dela guraso
gazteen artean
erabilerak behera
egin duela.**

- Azaltzen zailagoa da 13 udalerritan¹⁰ gertatzen den banaketa: *Haur-nagusi/Nagusi-nagusi/Haur-haur*. Aztertzekoa da zergatik ez diren natural ematen haurren arteko elkarrizketak euskaraz.
- Azkenik, udalerrri bana dugu ondorengo banaketetan: “Haur-haur/Nagusi-nagusi/Haur-nagusi” eta “Nagusi-nagusi/Haur-nagusi/Haur-haur”.

Orokorki, beraz, haurren era bateko edo besteko presentziak erabileraren gorakada ekartzen du.

Erabileraren datuak gaitasunarenekin erkatuz gero, bada nabarmentzeko punturik:

- Haurren arteko elkarrizketak nagusi diren tipologietako udalerrriak euskaldunagoak dira (batez besteko elebidunen kopurua %66 da).
- Haurren eta nagusien arteko elkarrizketak nagusi diren tipologietako udalerrietan batez besteko elebidun kopurua %49 da.
- Haurren arteko elkarrizketetan erabilera urriena gertatzen deneko 13 udalerrietan, elebidunak batez beste %29 dira.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dugu, udalerrri txiki euskaldunetan (arnasguneetan) aztergai dagoela, baina susmatzen dela guraso gazteen artean erabilerak behera egin duela. Lan horretan ari gara orain Gipuzkoako herri txiki batzuetan, eta oraindik ez dago aukerarik bilakaera aztertzeko, baina jasotako datuek adierazten dute oro har alde handia dagoela guraso gazteen (30-45 urte) arteko erabileraren eta gainontzeko adin-tarteen aldean¹¹. Horietako asko beste udalerrietatik etorritakoak izango dira, seguru asko. Gertutik jarraitu beharreko fenomeno da.

HIZTUN-ELKARTEEN DIAGNOSTIKOA ETA ARNASGUNEAK

I Egileak aurkezten duen bizitasunaren neurgailu berritua oso interesgarria da. Eredugarria izan daitekeen sistema plazaratu du. Ekarpen hau dator, hain zuzen ere, Euskararen Adierazle Sistema lantzen ari garen unean. Aurrera begira, aztertu beharko da ea nola osatu daitezkeen bi sistemak.

Diagnostikorako sistemak hamabi kategoriako eskala hartzen du, garbi utziz euskararen egoera ez dela homogenea, eta, aldiz, horietako kategoria guztietan ageri direla desberdin gure herriko lurraldeak. Mailakatze horretan ikusten da, halaber, zein lurraldetan doan gorantz edo

beherantz hizkuntza. Bi multzo nagusi bereizten ditu: arnaguneak eta lurralde erdaldunak, eta horien artean geratzen dira gainontzekoak.

Egileak arnaguneak lehenesten ditu mintzaldaketa ez gertatzeko, izan ere “ondotxo errazagoa da dagoenari bizirik eustea, hildakoa berpiztea baino.” Erdararekin talka egiten duelarik, euskara bizirik aterako bada talkada horretatik, beharrezkoak ditugu konpartimentazio soziofuntzional propioak. Eta horretantxe dago erronka: konpartimentazio hori asmatu, adostu eta antolatu behar da. Konpartimentazio hori da diglosia, egileak dioenez. Gaude, hala ere, termino horrek duen konnotazio-kargak ez ote dion kalterik egiten. Terminorik egokiena ote da euskararen biziberritzeak behar duen adostasuna eta ilusioa zabaltzeko?

Arnaguneen garrantzia eta lehentasunezko izaera baieztatu nahi dugu guk ere. Edonola ere, agian *arnasgune* kontzeptua ez zaio herri izaera duten gune geografikoei soilik aplikatu behar. Berez arnagune izatera iristen ez diren gune geografikoetan ere badira arnaguneak, eta horiei ere arreta berezia eskaini behar zaie, edo halakorik ez dagoenetan ere ahaleginak egin behar dira sortzeko. Funtsean, euskarazko harreman-sareak sortzeari edo dauden sareei eusteari buruz dihardugu.

Eta sare horiek, arnagune horiek, ez da komeni bakarrik landa-guneekin lotzea. Espazio urbanoetan ere arnaguneak behar dira. Kualitatiboki garrantzi handikoa da hau, baita prestigio kontua ere. Pentsa dezagun bertsolaritzaren bilakaeran, adibidez.

Egileak, azken batean, ikuspegi ekosistemikoa planteatzen du: hizkuntzaren etorkizuna bermatu ahal izango da baldin eta ekosistema osasuntsu bat garatzen baldin bada, non egitura sozial, politiko, ekonomiko, urbanistiko eta kulturalaren garapen integrala eta iraunkorra ziurtatuko den. Euskarak halako ekosistema behar du. Baina, ez dezagun ahaztu bestalde, ekosistemak, osasuntsu eta iraunkor izango bada, euskara behar duela. ●

OHARRAK

1. Adibidez, demagun A eta B herrietako erabilera %15ekoa dela. An euskaldunak %20 dira (gaitasunaren aldagaia, hortaz, %20koa), eta Bn euskaldunak %90 izatera iristen dira. Gauzak horrela, Aren eraginkortasun-indizea 75ekoa izango da eta Brena, berriz, 16,7koa. Alde horrek adierazten du An euskaldunek joera handia dutela euskaraz egiteko, Bko euskaldunek baino askoz handiagoa.

2. “Baiona” ez dugu azterketa honetan kontuan hartu, ez dugulako gaitasunari buruzko daturik.

1 Edo, behar bada, bestelakoren bat hobetsi behar da: “Zein portzentajetan egiten duzu euskaraz, gaztelaniaz...?”, “Hamar elkarrizketatik zenbat egiten dituzu euskaraz?”

Arnaguneen garrantzia eta lehentasunezko izaera baieztatu nahi dugu guk ere. Edonola ere, agian arnagune kontzeptua ez zaio herri izaera duten gune geografikoei soilik aplikatu behar.

2. Beste alor batzuetan hala egiten da. Esate baterako, generoari buruzko galdera inkesta guzti-guztietan sartu da Emakundek eskatuta.
3. Aukera gisa jarri dugu banaketa hau. Jakitun gara eremu soziolinguistiko horien mugak eztabaidagarriak direla, baina beharrezkoa da ados jartzea. Gure kasuan, datu estatistikoen eskuragarritasunak eraman gaitu banaketa honetara.
4. Ohar gaitezen zonalde linguistiko horietako bakoitzak ez duela zertan gune geografiko bakarra adierazi. Tipologia bereko zonaldeak geografikoki gune desberdinetan koka daitezke.
5. Garrantzitsua litzateke INSSetekin lantzea biztanleriari buruzko zentsuan hizkuntzari buruzko galderak sartzeko aukera.
6. Erandion gazteen eta adinekoen erabilera bera jaso dugu, beraz, ez dugu 12 tipologia horietan multzokatu.
7. Tipologia honetakoak dira: Andoain, Aramaio, Baiona, Bilbo, Donostia, Erreterria, Eskoriatza, Gorniz, Hernani, Olatzagutia, Oñati, Ordizia, Ugao, Villabona-Amasa eta Zaurutz.
8. Hemen daude: Altsasu, Iruñea, Irurtzun, Audio, Legazpi, Sopela eta Urduña.
9. Elkarriketa hauek batez ere 8-9 urtetik gorakoak dira.
10. Hirugarren tipologiakoak dira: Audio, Gasteiz, Uhartea Arakil, Iturmendi, Olatzagutia, Iruñea, Irurtzun, Urduña, Orozko, Urduliz eta Zaldibar.
11. Hona ekarri ditugu datu batzuk: Gabirin (2013) haur-gaztetxoaren erabilera %93 eta gurasoena %70. Iruran (2013) haur-gaztetxoaren erabilera %91 eta gurasoena %69. Asteasun (2015) haur-gaztetxoaren erabilera %96 eta guraso-aiton-amonena %69. Seguran (2015), alde txikiagoa dago, haur-gaztetxoaren erabilera %97 eta guraso-aiton-amonena %81.

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, O. & Basurto, A. (2012). Hizkuntza-erabileraren neurketaren metodologia. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (84), 17-30.
- Altuna, O. (2002). Erabileraren IV Kale Neurketa. Emaizten azterketa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (43), 37-50.
- Altuna, O. (2002). Erabileraren IV. Kale Neurketa. Ibilbidea eta metodologia. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (43), 25-36.
- Altuna, O., Iurrebaso, I., Isasi, X., Ramos, R., & Uranga, B. (2012). Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaizta nagusiak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (84), 31-58.
- Alvarez Enparantza, J. L. (2001). Hacia una socio-lingüística matemática. *Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen: Sortzen*.
- Euskarabidea, Euskararen Nafar Institutua (2011). Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa, 2011. Kontsultatzeko: http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/mapa-soziolinguistikoa-2011_txostena-2.pdf
- Eusko Jaurlaritzak. (2013). Mapa Soziolinguistikoa V, 2011. *Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua*.
- Eusko Jaurlaritzak. (2013). V. inkesta soziolinguistikoa 2011. *Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua*.
- EUSTAT (2011). Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak eta erroldak. Gaindegia. <http://www.gaindegia.eus/es>

- Iurrebaso, I. (2012). Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (84), 103-120.
- Iurrebaso, I. (2012). Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den azterteko. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (84), 89-120.
- Sorolla, N., & Vila i Moreno, F. X. (2016). Els grups segons els usos lingüístics i l'evolució de l'ús del català entre 2003 i 2013. En Generalitat de Catalunya (Ed.), *Anàlisi de L'Enquesta d'usos lingüístics de la població a Catalunya 2013. Volum 1: Coneixements, usos, transmissió i actituds lingüístics*. (Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura). Barcelona.
- Sorolla, N., & Vila, F. X. (2004). Katalanez egiten duten lurraldeetako hizkuntza erabileren ikerketa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (53), 113-127.
- Soziolinguistika Klusterra (2016). Euskararen datu-basea. Kontsultatzeko: <http://www.soziolinguistika.eus/edb/>
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Gabiriako hizkuntza-erabileraren kaleneurketa. *Argitaratu gabea*.
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Irurako hizkuntza-erabileraren kaleneurketa. *Argitaratu gabea*.
- Soziolinguistika Klusterra (2015). Asteasuko hizkuntza-erabileraren kaleneurketa. *Argitaratu gabea*.
- Soziolinguistika Klusterra (2015). Segurako hizkuntza-erabileraren kaleneurketa. *Argitaratu gabea*.
- Torres, J., Vila, F. X., Fabà, A., Bretxa, V., & Pradilla, M. À. (2005). *Enquesta dels Usos Lingüístics a Catalunya 2003. Llengua i societat a Catalunya en els inicis del segle XXI*. Barcelona: Generalitat de Catalunya - Secretaria de Política Lingüística. Recuperat de <http://llengua.gencat.cat/permalink/49154085-5386-11e4-8f3f-000c29cdf219.pdf>
- Vila i Moreno, F. X., & Sorolla, N. (2016). Les llengües en els usos interpersonals i en els àmbits de consum i serveis. En Generalitat de Catalunya (Ed.), *Anàlisi de L'Enquesta d'usos lingüístics de la població a Catalunya 2013. Volum 1: Coneixements, usos, transmissió i actituds lingüístics*. (Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura). Barcelona.